

Zakurren jabeei zuzenduriko sentsibilizazio kanpaina abiatu da

Andoaingo kale eta txokoetan zakur kakak biltzeko kanpainari ekin dio Udalak.

Herrigune gehienetan arazo beretsua gertatzen ari da, baita Andoainen ere. Berriki auzoz auzoko bileretan auzotarren artean errepikatzen den keza bildu gabe eta kalean uzten den zakur kaka izaten da. Udalak bilera horietan sentsibilizazio kanpaina iragarri zuen, eta dagoeneko kanpaina hori martxan da. Egun hauetan herriko toki askotan zakur jabeei zuzenduriko txarteltxoak ikus daitezke.

Asteazken goizean **Ana Carrere** alkateak eta **Pedro Unanue** Zerbitzuak lansaileko zinegotziak kanpainaren berri eman zuten. Zakur kopurua handi samarra da Andoainen, eta jabeek kontzientzia hartzea garrantzitsua dela deritzote: "Denbora gutxian asko hazi da zakurren kopurua Andoainen; gaur egun bi mila zakur inguru ditugu. Tamalez, gehiegitan gure herriko kale eta txokoetan zakur kakekin topo egiten dugu. Jakin badakigu azken garaiotan kontzientzia areagotu egin dela, baina badira oraindik ere jarrera eredu-garririk ez duten jabeak".

ANDOAIN GARBI

Jokabide txukuna ez duten zakurren jabe horiei bereziki Andoain garbi mantentzeko dei egin diete: "Andoain garbi



Pedro Unanue Zerbitzuak saileko zinegotzia eta Ana Carrere Andoaingo alkatea, kanpainaren aurkezpenean.

mantentzeko ekarpena egin dezatela eskatu nahi diegu. Bizilagun guztien arteko elkarbizitza hobetu asmoz, gauzak ondo egitearen aldeko kanpainaren eginen ari gara".

Dagoeneko herriko kaleetan eta berdeguneetan karteltxo ugari ikus daitezke, Andoaingo kaleak garbi mantenduz eskatuz eta zakur kakak jasotzera gonbidatuz. Zakurra paseatzera ateratzerakoan poltsatsoa eraman eta gorotzak biltzea, besterik ez da Udalak kanpainaren honekin eskatzen duena. Keinu txiki horrekin: "Andoain garbia eta atsegina izatea lortuko dugulako".

POLTSATSOAK ESKURAGARRI

Kakak biltzeko poltsatsoak he-



Kakak biltzeko deialdia luzatzen duten txarteltxoak ipini dituzte herri osoan zehar.

rriko hainbat merkatalgunetan eskuragarri daude, eta dohainik har daitezke: Gorostidi, Martin elektrizitatea, Mayer, Elizondo, Ciclos Patxi, Ernai-

tza liburudenda, Gamer, Iturbe oinetakoak, Maindi optika, Ormendi Kirolak, Pottoko, Xixori, Xare, Coviran Karrika, Andoaingo Udaleko Ataria.

Lopez de Lacalle gogoan

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]

Pailazoak laster datoz Urnietara



Pirritx, Porrotx eta Marimotots maiatzaren 20an Urnietan arituko dira, 17:30etik aurrera Egapeko jolastoki estalian. Sarrerak Xauxarren eta Kantoin salgai daude. Baita Andoaingo Ernaitzan ere.

[URNIETA, 3. ORRIALDEA]

Andoain Erreterria eskuz binaka

Herriarteko pilota txapelketa abian da, eta Andoaingo Gaztelekuk larunbat honetan Erreterria taldearen aurka jokatuko du. Arratzen izango da arratsaldeko 18:30an hasita. Etxekoak faborito dira, joanekoan 0-3 irabazi baitzuten. Klubak herritarrek Arratera hurbiltzeko deia egin du.

[KIROLA, 9. ORRIALDEA]

MAIATZAREN 1ETIK 31RA ARTE

egin zure ANDOAIN TXARTELA eta 10eko saria jasoko duzu

EKAINAREN 30A ARTE GASTATZEKO SALKIN DENDETAN

izakinak bukatu arte



“GABON TXIRRITA” ANTZEZLANA IRAILEAN TAULARATUKO DA DONOSTIAN ETA URNIETAN

Gentzane Belaustegigoitia “Gabon Txirrita”ko jueza

Gentzane Belaustegigoitia Izagirre (Laudio, 1967) “Gabon Txirrita” antzezlaren muina den epaiketako jueza izango da. Dagoeneko badu eskarmentua antzezele moduan. Urnietan, azken urteetan egin

diren hiru herri ikuskizun handietako parte-hartzaile izateaz gain, antzerki tailerreko kide da. Martxoaren hasieratik, beste 30 urnietarrekin batera, entsaioetan buru-belarri murgilduta dabil.



Antzerkiak zer ematen dizu?

Gentzane Belaustegigoitia: Niretzat, antzerkiak osagai asko eta interesgarriak ditu, hala nola, xarma, magia, hausnarketa, helburuak, konfiantza, sormena, komunikazioa... Lan talde batean giza-grinak esploratzeko eta sentimenduak adierazteko edo eraldatzeko aukera ematen du. Pertsona bezala, hazteko eta hezteko lagungarria da.

Zein izan da orain arte zure aktore ibilbidea?

G.B.: Gogoan dut ikastolan antzerki lan batzuk egiten genituela. Ondoren, nerabezaroan, egin nuen lehenengo aldiz antzerkia antzoki batean. Enrique Jardiel Poncela dramaturgoaren "Eloisa está debajo de un almendro" obra izan zela ondo gogoratzen naiz. Eta hemen, Urnietan, 2008. urteaz geroztik nabil antzerki munduan murgilduta. Parte hartu nuen "Marizulo", "Urnietan 59" eta "1936" ikuskizunetan. Horrez gain, Urnietako Antzerki Tailerrako kidea ere banaiz, eta urtero antzezlana aurkeztu ditugu. Baita lagunarteko afarietan, herriko jaietan, Laudioko ikastolaren 25. urteurrenean, edota lantokiko inaugurazio eta beste hainbat ekintzetarako ere sketx edo saio labur batzuk prestatu izan ditugu. Beraz, esan dezaket, antzerkia nire bidelaguna dela.

Hainbat pertsonaien azalean sartu zara. Norekin geratuko zinateke?

G.B.: "Eloisa está debajo de un almendro" antzezlana aipatu dudanez, obra hori antzeztetakoan egin nuen "Mariana Briones"ena aipatuko nuke. Hamazazpi urterekin egin nuen lan hori, eta nire lehenengo paper serioa izan zen.



Gentzane Belaustegigoitia.

Talentua ala esfortzua, zer da garrantzitsuago antzezele baten zuzendariak?

G.B.: Nire ustetan, bien arteko konbinaketa izango litzake onena, baina, bizitutako esperientziak erakutsi izan didate, gehienetan behintzat, arrakasta pertsonaiari eskainitako denbora eta esfortzu pertsonalaren ondorioz iristen dela.

Zer sentitzen duzu agertokira irten aurretik. Eta agertokian?

G.B.: Agertokira irten aurretik, urduritasuna eta adrenalina. Esaten da, aktoreek antzerkia egiteko duten arrazoietako bat entzunak izatea dela. Ez dakit horrela den, baina behin agertokian nagoenean, gorputz eta ahozko espresioaren bidez, ikusleari, barrea, ezustea, beldurra eta beste hainbat emozio sentiarazteko aukera dudala badakit, eta gustuko dut erronka hori.

Liburu bat, disko bat, film bat, antzezlana bat. Kontsumitzaile moduan, zer aukeratuko zenuke?

G.B.: Antzezlana bat aukeratuko nuke, zalantzarik gabe. Oholtza gainetik nahiz eserlekutik disfrutatzen dudan arte adierazpena baita. Eta antzokira ikusle moduan joandakoan ere, oso erraz sartzen naiz antzezlaren barruan eta asko gozatzen dut.

Nolatan animatu zinen obra honetan parte hartzera?

G.B.: Miren Gojenola eta Mikel Laskurain antzezlaren zuzendariak etorri ziren proiektua azaltzera. Erakargarria iruditu zitzaidan, Txirritari buruzkoa, Xabier Leteren jatorrizko gidoiarekin, Urnietan eta Urnietako jendearekin gauzatua. Berehala eman nuen baiezkua, eta oso gustura sentitzen naiz.

“Gabon Txirrita” lanean, protagonistatoko bat izango zara: epailea. Garai beretsuan antzerki tailerrekin beste obra bat prestatzen ari zarete. Horri guztiari aurre egiteko energia handia behar da. Nondik ateratzen duzu?



Gentzane entsegu batean, Joxe Mari Berasategi eta Jokin Izagirrekin.

“Xabier Leteren antzezlana idazteko orduan, umore freskoa, atsegina eta ulerterraza erabili zuela esango nuke”

G.B.: Bai, horrela da. Niretzako hobby bat izanagatik buru-belarri nabil antzerkiarekin. Nire lanbidea zenbakiei lotua dago, beraz, lanetik irten eta antzerkiaren mundu magiko horretan murgiltzeak ez nuke esango energiari xurgatzen didanik, guztiz kontrako, energiaren kargatzeko modu polita da niretzako.

Baduzu erreferentziarik zure pertsonaia sartzeko garaian?

G.B.: Antzezlana honetako jueza oso serioa ere ez denez ez dut kanpoko erreferentziarik eta zuzendariaren agindua jarraitzen saiatzen naiz. Anekdota moduan esango dizut, juezaren paperean izango nintzela esan zidatenean, lehenengo entsegu-rako datu batzuk eskuartean nintzela joan nintzela, esate baterako, 1966an, emakumeek karrera judiciala aukeratu ahal izateko zuten debekua kendu zela; 1978an lehenengo juezak kargua hartu zuela; gaur egun, juezen %51 emakumeak direla... Hori guztia azaldu nienean, taldekideek pentsatu zuten ez nuela paper hau egin nahi.

Obra honetan, besteak beste, bertsolarien artean eta sagardotegiko tertulietan duela laurogei urte erabiltzen zituzten espresioak agertzen dira. Hizkera hori erraza egiten al zaizu?

G.B.: Obra honetan testua oso garrantzitsua da. Leteren idazteko orduan, umore freskoa, atsegina eta ulerterraza erabili zuela esango nuke. Aberasgarria egiten zait sagardotegi inguruko hizkera hori, eta, baita, nire paperarengatik ikasten ari naizen auzitegiaren erabiltzen den hizkera berezi hori ere.

Antzezlana talde lana izanik, zuen arteko "kimika" nolako dela esango zenuke?

G.B.: Oso ona. Nerabezaroan hasi eta jubilatuetarainoko adin guztietako pertsonak ari gara talde lanean, elkar aberastuz. Aniztasun eta desberdintasun guztien gainetik elkarlanerako dagoen giroa bizikidetzaren adibide ederra dela iruditzen zait.

Gazteak erakartzeko moduko obra iruditzen al zaizu?

G.B.: Beraientzat ere erakargarria izan daitekeela uste dut. Iraganeko bizipenak agertzen badira ere, umorea da obraren osagai nagusienetako bat, eta osagai hori edozein adinetako ikusleentzat gustagarria da.

Nola konbentzitu zenuke herritarrik ikustera etortzeko?

G.B.: Txirritak berak aipatu zuen: "... Sartuagatik lurpian, nere aipamenak izango dira beste larogei urtian". Bada, pasa dira 80 urte bera hil zenetik eta hemen geroz herritar talde handi baten artean prestatu dugun antzezlana entretengarria eskaintzera.

Ildo nagusia Txirritaren hainbat bizipenen bueltan doa, Xabier Leteren jatorrizko testuarekin eta Urnietako antzezlaren parte hartzearekin... “Gabon Txirrita”k erakargarri izateko osagai guztiak ditu.

“Amalur” ikuskizuna maiatzaren 20an Egapeko jolastokian

Ikuskizun berriena Urnietan eskainiko dute



Pirritx, Marimotots, Porrotx eta hainbat lagun Egape ikastolako jolastoki estaliko taula gainera igoko dira.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak Urnietan dira berriro. Eta urrutira joan gabe, datorren ostiralean arratsaldeko 17:30ean hasita “Amalur” ikuskizun berriena eskainiko diete Urnietako eta inguruko haurrei.

Pailazoak baserrira doaz Marimototsengana. Bertan da Ilargirekin ikasten, baserritarra izan nahi baitu. Pailazoek ere baserriko lanetan lagunduko diote Ilargiri, haurdun dago eta. Laster jaioko baita umetxoa.

Hamaika pasadizu eta gertaera xeble biziko dituzte pailazoek, Pupu eta Lorerekin batera. Pertsonaiez beteriko ikuskizuna da: Porrúa eta tomatea bertsotan arituko dira, eta babarruna edota tipula dantzan arituko dira. Baita opil eta gai-

IKUSKIZUNA
“Amalur”
Maiatzak 20, larunbata
17:30. Egape. 7 euro.
Sarrerak salgai:
Xauxar, Kantoi, Ernaitza.

leta ezberdinak ere. Baserrian izanik, animaliak ez dira falta: Beltzane ardi beltza bihurria, Telex txerria, Margari oiloa, Txuri behia,... eta hori guztia gutxi balitz pertsonaia gehiago azalduko dira: Periko Lapiko sukaldaria, Erramun artzaia, Jenny azokako saltzaila edota produktuak jangela sozialera eramaten dituen Estanislao jubilatua.

Hainbeste jarraitzaile dituzten pailazoek ikuskizun berria taularatzten duten aldiro Urnie-

Pailazoak baserrira doaz Marimototsengana. Bertan da Ilargirekin ikasten, baserritarra izan nahi baitu. Pailazoek ere baserriko lanetan lagunduko dute

tara hurbiltzeko joerari eusten diote. Datorren ostiralean, hain zuzen, Urnietan zuzenean arituko dira Aiurrik eta Iñistorrak antolatutako saioan. Urnietako Udala haur ikuskizunaren laguntzaile da.

SARREREN SALMENTA

Sarrerak dagoeneko salgai daude Xauxar eta Kantoi tabernetan, 7 euroko prezioan. Baita Andoaingo Ernaitzan eta Hernaniko Antziola auzoko Ametsa ileapaindegian ere.



Porrotx eta Pirritx “Amalur” ikuskizunean opilen labeari begira, ondoan Marimotots dutela.

Baserritarren ospakizuna, ostiral honetan



Patxi Etxeberria eta Beñat Gaztelumendi bertsotan arituko dira.

San Isidro eguna igandean da, eta ostiral honetan baserritarrei eskainitako omenaldia antolatuko dute.

Ospakizunak meza batekin hasiko dira, eta ondoren ohiko hamaiketako eta bertso saioa.

Matrikulazio garaia Lourdes Iriondo musika eskolan

2016-17. ikasturterako matrikula epea dagoeneko zabalik dago. Dagoeneko ikasle direnek jarraitzeko edota baja emateko aukera izan dute.

Deialdia bereziki garrantzitsua da lehen aldiz izena eman nahi duten ikasleentzat. Horientzat guztientzat epea maiatzaren 20ra bitartekoa izango da.

Ikasgela zerbitzu berria

Azterketa garaia denez, Urnietako Udalak “Ikasgela” ikasteko zerbitzu berria zabaldu du. Lekaioko azpikal-

deko gunea egokitu dute, goizko 08:00etan irekiz gaueko 21:00ak arte. Uztailaren 8ra arte zabalik izango da.

Bolondres lana Etioipian

Urnietako Misio Batzordeak aurtengoan ere urnietar gazte bati Etiopiar bolondres lanak egitera joateko aukera eskainiko dio. Hiru hilabete inguruko egonaldia izango da eta epe horretan doanari oinarritzko beharrak asetzeko ordainduko zaio, hala no-

la, janaria eta lotarako lekua. Egokiena irailtik azarora bitarteko datatan abiatzea litzateke. Ez dira baldintza asko bete behar, baina ingelesa menperatzea ezinbestekoa da.

Izen-ematea:
gazteinformazioa@urnieta.eus

Bertan bulegoa, eredu



Amasa-Villabonako Udal ordezkariak Bertan bulegoaren atarian.

Bertan arreta zerbitzua erreferentziazkoa bilakatu da hainbat udalerrientzat. Urtean zehar hainbat udalerritako ordezkariak bertaratu dira, zerbitzua bertatik bertara ezaugu asmoz. Urnietara hurbil-

tzen azkenak Amasa-Villabona eta Orozkoko Udal ordezkariak eta teknikariak izan dira. 2013ko urtarrilean Bertan zerbitzua zabaldu denetik, Urnietako arreta zerbitzua erreferentzia bilakatu da.

“Izebaren etxea” ireki dute Kaleberrian



Ekimen berriko kideak, argazkian.

0-3 urte bitarteko haurrak eta beharra daukaten helduak zaintzeko txokoa da Izebaren etxea. Gizarte Integrazioa ikasketa egina daukaten Amaia Gurrutxagak eta Belen Ugartemendiak ireki dute. Kaleberrian kokatzen den egoitzako erakuslehoian, era honetan definitzen da txokoa: “lehenengo ohiturak oraingo gizartera ekarri, izabaren etxea sortu dugu. Gure altzoa, magala zein besoak gertu ditugu maite dituzuen

horiek goxotasunez zaintzeko, etxean bezala”.

Zaintzan eskarmentu handia daukate Gurrutxagak eta Ugartemendiak, eta Euskal Herrian aurrekaririk ez dagoen zaintza mota batekin animatu dira, pentsatuz gizartean dagoen premia bati erantzuna ematera datozela.

Hamabi orduz egongo da irekia txokoa, 08:00etatik 20:00etara. Egoera ezberdinetara erraz moldatzeko prest agertu dira.

Emusik jaialdiaren notak Andoaingo txokoetan



Ondarretako ekitaldi nagusiari txalaparta doinuekin hasiera eman zioten.

Emusik musika jaialdia Andoainera iritsi zen, musikari eta ikusleen parte hartze

handiarekin. Herrikoekin batera nazioarteko musikiak zuzenean aritu ziren.



Musika eta dantza Bastero plazan.

Urte luzeko prozesua eta gero absoluzioa iritsi zaio Garciari

Absoluzioa lortuta, libre da Karlos Garcia

Karlos Garcia apirilaren 22an itzuli zen Andoainera, 15 urtez ihesi bizi ostean. 2000an hamasei urteko zigorra ezarri zioten, baina berriki Auzitegi Gorenak absolbitu egin du. Urte horietan edukitako bizi-penak azaldu ditu, “Karlosen Lagunak” ekimeneko Aitor Arribillagarekin batera.

Nola topatu dituzu Andoain eta andoaindarrak 15 urteren ostean?

Karlos Garcia: Urbanistikoki gauzak nahiko eraldatuta ikusi dut herria. Atzera eginda, egin behar da kontu Txiti Bang Bango eta pezeten garaikoa naizela, eta Etxeberrieta edo Zumeako auzo berri horiek eraiki aurretik utzi nuela Andoain. Bastero kulturetxea den horretan, zuloa besterik ez zen.

Seme-alaben guraso eginda topatu ditut lagun asko! Baina bestelakoan, nortasunez-eta, beti bezala ikusten ditut.

Santa Krutz jaien atarian etortzea egokitu zaizu...

K.G.: Ez zait iruditzen festak ospatzeko moduak ere gehiegi aldatu direnik. Akaso, bi gauzak piztu didate arreta bereziki: blusen ohitura oso zabaldua egotea, eta herri bazkarira gazte jende ugari hurbiltzea.

Egun gutxian emozio pila bizi izan ditut, eta horrekin itzuliko naiz Italiara. Urte asko igaro arren, argi geratu da Andoain nirekin gogoratzen zela jendea, eta gainera elkartasuna erakusteko prest azaldu dela. Horrek poz handia eman dit.

Italiara itzultzekoa zara...

K.G.: Bikotea eta semea itzuli dira jada, eta neu ere banoa egunotan. Italiarrak dira biak, neuk ere sustriak han eginak daukat, eta logikoena urte hauetan hirurok egin dugun bizimoduarekin jarraitzea da. Nolanahi ere, Andoain bizi da nire familiarren zati bat, bertan lagun handiak daukat, eta ez zaigu asko kostako tarteka bisitan honantza etortzea.

Nolako bizipena izan da hamabost urtekoa?

K.G.: Denetik bizitu dut, bere alde on eta txarrekin. Bizi fase ezberdinak izan direla esango nuke. 2000ko abenduan erabaki nuen ihes egitea Andoain-



Karlos Garcia eta elkartasun taldeko Aitor Arribillaga.

“Egun gutxian emozio pila bizi izan ditut, eta horrekin itzuliko naiz Italiara”
Karlos Garcia

dik. Banketxe baten erreketaleporatzen zidaten; hamasei urteko espetxe zigorra eta 33 milioi pezetako kalte ordaina eskatu zuten niretzako. Frogak barregarriak ziren: burua estalita zihoan sutearen eragileetako batek nire itxura omen zeukan, nire etxean mailu bat eta pegatinak topatu omen zituzten... Epaileak berak sententzian aitortu zuen frogak ez zirela oso pisuzkoak, baina errudun deklaratu ninduen. Injustizia baten biktima nintzen, eta ihes egitea erabaki nuen.

Italian aske sentitu nintzen hasieran, nahiz eta Andoaingo harreman familiar eta sozial guztiakin hautsi behar izan. Laster, baina, legez kanpo bizitzaren patua jasan behar izan dut. Bizitza bikoitza eman beharra alegia, Bartzelonako Roberto bainintzen. Oso latza egin zait psikologikoki, eta ez bakarrik edozein unetan atxilotetaren ezpata gainean neramalako. Lan eskaintza askori ezetz esan beharraz gain, Erroman bizitza soziala egiten hasi orduko, nire nortasuna ezkutatzea kondenatua nengoelako. Psikologoaren premia sentitu dut azken lau urtetan, oreka bilatu ezinik bainenbilen giza harremanen aldetik.

Bizitza anormal horren alde-rik onena, lagunak egin familia osatu izana da.

Nola izan zen Italiako atxiloteta?

K.G.: Nazioarteko agindua zeukatela-eta, 2015eko otsailean

atxilotu ninduen hango poliziak. Nazioarteko terroristatzat jo ninduten, ez dakit zenbat etxe prest omen neuzkan terroristak babesteko... Kartzela sistema gogorra da hangoa, eta zortzi hilabetez isolatuta eduki ninduten.

Nola erreazionatu zuten zure gertukoek Italian?

K.G.: Erabateko harriduraz! Ondo ezagutzen nauten lagunak eta semearen eskolako gurasoek inoiz ez dute sinetsi bertsi ofiziala, nazioarteko terroristatzat jotzen ninduen. Horieta gehienek ez dute erreparorik eduki nire alde sinatzeko. Bestalde, elkartasun mugimenduak funtzionatu du Erroman; Kongresuko hiru diputatuk kartzelan bisitatu ninduten eta nire kasuagatik arduratu ziren.

Absoluzioa, ezustean iritsi al zaizu?

K.G.: Itxaropena inoiz duzu galtzen, baina ez genuen espero. Orain Italian beste prozesua geratzen zait, identitate faltsuarekin bizi izan naizelako.

Andoain zure aldeko Karlosen Lagunak izeneko talde mugitu da. Zer daukazue esateko taldeko kideek?

Aitor Arribillaga: Gaizki hasitako zirkulua ondo itxi denaren sentsazioa daukagu. Orain 15 urte elkartu ginen lehenbiziko aldiz Carlos atxilotu zutenean, eta zenbait herritarrek berriro heldu genion gaiari, Ruben Gelbentzuren kasuan ibili ziren beste batzuekin batera.

Udalbatzan mozioa ere aurkeztu genuen eta alderdiek onartu zuten botere gehiegieria egon zela estatuaren aldetik.

ETak kazetaria etxeko atarian hil zuen 2000ko maiatzaren 7an

Lopez de Lacalleren omenezko ekitaldia



Ekitaldian Andoingo PSE-EE alderdiko Maider Lainezek eta Lopez de Lacalleren alargun Mari Paz Artolazabalek hartu zuten hitza.

Jose Luis Lopez de Lacalleren aldeko omenaldi ekitaldia egin zuten aurreko larunbatean. Lopez de Lacalle Artolazabal familiako kideez gain, euren lagunak, Andoingo bizi-lagunak eta PSE-EE eta EAJ-PNVko kideak bertaratu ziren ekitaldira. Ekitaldian Andoingo PSE-EE alderdiko **Maider Lainezek** eta Lopez de Lacalleren alarguna **Mari Paz Artolazabalek** hartu zuten hitza. Biek ere euskaraz zein gaztelaniaz hitz egin zuten.

Lainezek ETak Lopez de Lacalle zergatik hil zuen adierazi zuen, "bere ideiak defendatzen zituelako, askatasuna defendatzen zuelako". Aurrera egiteko atzera begiratu beharra dagoela aldarrikatu nahi izan zuen, "gaur egun gero eta gehiago esaten digute orrialdea pasa behar dela aurrera egiteko. Egia da, etorkizuna denon artean eraiki behar dugula, geure seme-alabek askatasunean bizi daitez denok nahi dugu. Baina horretarako lau ardatz nagusiekin eraiki beharko dugu etorkizun hori, eta horiek dira justizia, egia, erreparazioa, eta batez ere, memoria. Memoria bizirik mantentzeko bildu gara gaur, hain zuzen".

Eskaera zehatz bat eginez hasi zuen mintzaldia Mari Paz Artolazabalek: "Egina dagoena egina dago, baina sufrimendua eragin dutenei eskatuko nieke hausnarketa sakona egin dezatela, armak entregatu ditzatela, eta esan dezatela egin zutena inoiz ez zuela gertatu behar".

Hil zuten senarra ez zela inoren arerio adierazi zuen segidan: "Herri hau maite zuen, euskaltzalea zen eta bere seme-

"Bere ideiak defendatzen zituelako, askatasuna defendatzen zuelako hil zuten Jose Luis Lopez de Lacalle"

Maider Lainez

"Jose Luisek herri hau maite zuen, euskaltzalea zen eta bere seme-alabek euskaraz burutu zituzten ikasketa guztiak"

Mari Paz Artolazabal

alabek euskaraz burutu zituzten ikasketa guztiak. Are gehiago, euskaltzalea izan ez balitz ere, pertsona librea zen eta konbentzimendu osoa zeukan pentsatzen zuena adierazteko".

Gaztelaniaz jarraitu zuen ondoren, adierazteko Lopez de Lacallek terrorismo guztiak salatu zituela. "Estatu terrorismoa ere gertatu da herri honetan, baina Jose Luisek terrorismo guztiak gaitzetsi zituen. Zenbaitek hilketa batzuek gaizki ikusten dituzte eta beste batzuek ondo; nik ekintzak hartzen ditut kontuan, ez nork egin zituen". Barkamenaren

kontzeptua ekarri zuen gogora, bukatzeko: "Niri berdin zait maila pertsonalean barkamena eskatzera etortzen bazaizkit ala ez. Nik eskatzen dudana da herriari barkamena eska diezaitela".

Iritzi emaila eta Ermuko Foroko kide zen Lopez de Lacalle, ETak 2000ko maiatzaren 7an hil zuenean. Bere oroimena ez ahazteko eskultura ipini zuten kanposantu zaharra deritzon tokian, gerora Udalak erabakita "Lopez de Lacalle" izena hartu zuena. Hain zuzen, omenaldi ekitaldia eskulturaren aurrean egiten da urtero.



Mari Paz alargunak loreak ipini zituen unea.

Ikastolako DBHko ikasleak Alemaniako Werther hirian



Ikasleen egonaldiko argazkia.

DBH3ko ikasleek Alemanian izan berri dira, elkartruke bidaian. Martxoan Alemaniako

Werther hiriko hogeita hamar ikasle Andoainen izan ziren.

Lanbide Heziketako ikasleen erakustaldia, ostegunean



La Salle Berrozpeko ikasleak.

La Salle Berrozpe Ikastetxek Lanbide Heziketarako azken teknologiek erakustaldia egingo du ostegun honetan Zumea plazan, arratsal-

deko 17:30etik 19:30era bitartean. Karpa batean 3D inprimagailuak, dronak, domotika aparailuak eta beste ikusgai izango dira.

Isuna ezarriko diote araudia betetzen ez duen gidariari

Eskola kalea eta Kale Nagusiko sarbidean, auto gidarien kontrol sistema indarrean jarri dute. Udal ohar bidez erabakia errespetatzen ez dituenak ohartarazi ditu: "Jakina den moduan oinezko bidea da. Udal Trafiko Orde-

nantzan jasotakoaren arabera, baimenik ezean, ordutegiz kanpo ibilgailuekin sarbidea debekatuta dago". Maiatzaren 9tik aurrera ordutegiz kanpo baimenik gabe sartzen diren ibilgailu guztiak isuna jasoko dute.

Bigarren eskuko azoka

Postontzia: Udala

"Zaharrak berrituz 12 Andoingo bigarren eskuko objektuen azoka prestatzen ari gara eta herriko eta inguruko herrietako jendeak parte hartzea nahi dugu, zuk erabiltzen ez dituzun gauza guzti horiek oso baliagarriak izan baitaitezke eta ingurumenari mesede egiten baitiozu. Beraz, jostailuak, disko-

ak, liburuak, arropa, bizikletak edo erabiltzen ez dituzun beste gauzak baldin badituzu, anima zaitetz eta jar zaitetz gurekin harremanetan".

Informazioa: 943 591 298. Izena emateko epea: Ekainak 25.

Azoka eguna: Uztailak 2, larunbata. Zumea plaza. 10:00-14:00.

EUSKARAZKO PRAKTIKALDIAK BURUTZEKO EGITASMOAK EUSKADIN ETA BURUNTZALDEAN



Lanbide heziketa, euskararen bidean

Koldo Ulanga Usurbilgo Lanbide Heziketa ikastetxeko irakaslea da. Eta lantoki duen Usurbilgo ikastetxean bertan kokatzen da Laneki, Euskadiko lanbide heziketa ikastetxeetan euskararen alde lanean

dabilen elkarte. Garrantzia handikoa da, gaur egun Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lanbide Heziketako ikastetxe publikoak (Ikaslan) eta kontzertatuak (Hutel) bere baitan biltzen dituelako.

Koldo Ulanga andoaindarra Usurbilgo Lanbide Heziketa ikastetxe publikoan euskara batzordeko dinamizatzailea da. Berarekin izandako solasaldian, hasteko eta behin euskararen aldeko egitasmoetan talde lanak duen garrantzia nabarmendu nahi du: "Euskararen aldeko lana ez dut nire helburu modura hartzen, taldearena baizik. Euskara batzordean sei kide gara, ikastetxearen atal bakoitzeko ordezkari banarekin. Eta, noski, funtsezkoa da irakasleen, irakasle ez diren langileen eta ikasleen inplikazioa. Denon parte hartzerik gabe, jai dugu".

Lanbide Heziketako ikastetxeak euskararen bidean garapen handia izan du, behar eta zailtasun beretsuak dituzten beste ikastetxe askok bezalaxe. Horiek guztiak **Laneki** elkarteko kide dira, behar handiei erantzuteko sortu zena: "Bere garaian lanbide heziketa euskaraz eskaintzeko zeuden hutsuneak osatzeko sortu zen. Nabarmenena, ikas-materiala. Zorionez, sektore publiko eta pribatuko ikastetxeak elkartu gara. Euskara ez da gure artean bereizteko erabili behar den arma bat, baizik eta denon artean pauso txikiak emanez normalkuntzan aurrera egin genezan. Euskara gu guztiok batzen gaituen faktorea da".

Ikasleen praktikaldia euskaraz bideratzea izan da Lanekiren erronkatarikoa. Berriki, behar hori asetzeko **Lanpres** izeneko gida argitaratu dute. Sorburuaren berri ematen du Ulanga: "Euskaraz ikasi arren, praktikak egiteko garaian erabilitako hizkuntza gaztelania izaten zen. Beste elementu batzuk lehenesten ziren: Enpresaren estiloa, ikaslearen perfil tekniko... azken saioan kontzientziario lana egiten ari gara euskara faktore eraginkor horietakoa izan dadin. Gidak horretan lagundu nahi du, genuen kezka horri erantzuteko tresna bat da".

Lanpres gidak zehazten duena betetzeko eragile guztiak parte hartu behar dute: Alde batetik,



Koldo Ulanga andoaindarra, lantoki duen Usurbilgo Lanbide Heziketa ikastetxean.

praktikaldian dagoen ikaslea eta bere ikastetxeko tutorea, lan praktiken koordinatzailea eta euskara batzordeko koordinatzailea. Beste aldetik, enpresako hezitzailea. Gidari jarraiki, praktikaldiaren jarraipen zehatza egiten da, ebaluazioa eta guzti. Gidak izan duen abiapuntua garrantzia berezia du Ulangarentzat: "Aurkezpen ekitaldia Euskaldunak egin zen eta bertan izan ziren Cristina Uriarte Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua, Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako sailburuordea, hiru Foru aldundietako euskara zuzendariak, Lanbide Heziketako burua eta baita hainbat enpresari ere. Denen beharra dugu, botere publikoena eta enpresa pribatuena".

Buruntzaldean urrats bat aurrerago doa. Euskadi mailan Lanpres gida txertatzen doan heinean, horren ondotik eskualdean osagarria den egitasmoa sustatzen ari dira Buruntzaldeko udalak. Praktikaldia egingo duen ikaslea, ikastetxeko tutorea eta enpresa, hirurak, murgildu dituzte egitasmoan, jarraipena eta baliabideak eskainiz lantokiko prestakuntza hori euskaraz burutu dadin. Aurten bi ikasle ari dira egitasmo horretan, Mendiola eta Euskabea enpresetan praktikaldia eginez.

"Erakunde guztiak norabide berean jartzen ari gara, eta horrek etorkizuneko egitasmoetan garrantzia handia izango du"

Koldo Ulangaren lan bizitza heziketara lotuta egon da. Eskarmentuak ematen dion ikuspegiarekin, zuhur hitz egiten badu ere, baikor izateko bi argudio nagusi eskaintzen ditu. Lehena, erakundeen artean ematen ari diren sinergiak: "Ikastetxeoi euskararen sustapenean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza saletik ordu lektiboak eskaintzen dizkigute, FPko idazkari-tzatik babes osoa, Laneki elkarte lanean ari da, baita Buruntzaldeko udalak ere. Eta azken urteetan Foru Aldundia batu zaigu. Horiek guztiak norabide berean jartzen ari gara, eta horrek etorkizuneko egitasmoetan garrantzia handia izango du".

Bigarrena, azken hamarkodotan euskarak izan duen garapena: "Gurea hizkuntza minorizatua da, eta oraindik ere lan asko dago egiteko. Baina nire esperientzia pertsonala hartuta, aldatuta handia eman da. Ikasten nengoenean lanbide heziketa erdara hutsean eskaintzen zen. Irakasle euskaldunak topatu zituzkeen, baina dena erdaraz egiten genuen. Orain, bere muge-



Jokin Egurbide La Salle Berrozpe ikastetxeko irakaslea.


kin, euskaraz ikasteko aukera dago. Ikastetxea euskara hedatzeko oso tresna baliagarria izan da". Edalontzia erdi betea ikusten duen horietakoa da Koldo Ulanga.

ETEKIN HANDIKO ZIKLOAK

Andoaingo La Salle Berrozpe ikastetxe kontzertatua **"ETHAZI Etekin Handiko Zikloak"** heziketa ekimen berritzaile batetan burubelarri dabil, zeinean euskarazko ikasleak onuradun bilaka daitzekin. Ikastetxea bide berriak urratzen ari da Euskadiko beste lau ikastetxerekin batera (horietatik hiru publikoak, eta beste bi kontzertatuak). **Jokin Egurbide** irakasleak xehetasunez azaltzen du egitasmoa: "Ikasleei ez diegu temarioa banatzen. Arazoak dira mahai gainean jartzen zaizkionak, eta ikasleek arazo horiei irtenbidea emateko beharrak identifikatu behar dituzte. Behar horiek menderatzeko ikasketa batzuk egin behar dituzte, eta beraz formakuntza beharren arabera lantzen da. Talde lanean egiten da hori guztia. Ikasturte honetan taldeak egiteko garaian irizpideen artean hizkuntza ipini dugu. Beraz, gela berean bost euskaldun topatuz gero, bost horiek talde berean egongo dira. Hartara, ikasturte osoan euren hizkuntza euskara izango da. Talde horren funtzionamendua, beraz, D eredukoa da. Gela osoa kontutan hartuta, demagun 25 ikasle euskaldun daudela eta beste 2 erdaldun. Bi horiekin talde bat osatuko dugu. Horien funtzionamendua A eredukoa litzateke, eta gainerako guztiena D eredua".


Dagoeneko La Salle Berrozpeira Euskadi osoko irakasleak hurbiltzen ari dira, sistema horren garapena gerturik ezagutzeko. Aurreko astean, esaterako, 60 irakasle egun osoko jardunaldia egin zuten Andoainen. Denborarekin, ETHAZI Euskadi osoko lanbide heziketan txertatuko den sistema izango da. Ikasleen euskarazko trebakuntza bermatzeko abantaila izango da.

HIZKUNTZ EREDUAK ZIKLOZ ZIKLO




DBH

2015-2016 IKASTURTEA
A eredua B eredua D eredua
%0,0 %5,80 %94,20




BATXILERGOA

2015-2016 IKASTURTEA
A eredua B eredua D eredua
%7,20 %5,40 %87,40



LANBIDE HEZIKETA ERDI MAILAKO ZIKLOAK

2015-2016 IKASTURTEA
A eredua B eredua D eredua
%37,80 %31,40 %30,80



LANBIDE HEZIKETA GOI MAILAKO ZIKLOAK

2015-2016 IKASTURTEA
A eredua B eredua D eredua
%45,40 %20,40 %34,20



2016 / 2017

11 aukera, 11 Lan

Lanbide Heziketan ERE D eredua

Ziklo AUKERA zabala duzu Buruntzaldean eta inguruko eskualdeetan:

- ADMINISTRAZIO ETA FINANTZAK
- SISTEMA ELEKTROTEKNIKOAK ETA AUTOMATIZATUAK
- FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA
- GIZARTERATZEA
- BEROA SORTZEKO INSTALAZIOAK
- ESTETIKA ETA EDERGINTZA
-eta askoz ere ziklo gehiago

www.ikaslan.net (ikastetxe publikoak)

www.hetel.org (ikastetxe pribatuak)

Asko duzu IRABAZTEKO:

- Ikasketak euskaraz jarraitzeko aukera duzu.
- Prestakuntza osatuagoa jasoko duzu.
- Herri honetako bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan lan egiteko gaitasuna izango duzu.
- Ikasketak euskaraz eginez gero, euskararen jakite-mailaren baliokidetzak ziurtatuko dituzu, azterketarik egin gabe:
 - erdi mailako zikloetan: B-1
 - goi-mailakoetan: B-2



Andoain, Astigarraga, Hernani,
Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo
Udaletako Euskarako Batzordeak

www.buruntzaldea.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA



Andoaingo eskolakoak Gipuzkoan fin dabilta



Alebin mailako Dani Fursenko, Gipuzkoako txapelduna.



Infantil mailako Laiene Pikabea, Gipuzkoako txapeldun-ordea.

Oñatin alebin eta infantil mailako Gipuzkoako txapelketa jokoan zen eta Andoaingo txirrindulari eskolakoak oso ondo aritu ziren.

Bestalde, Urdulizen Ander Amonarriz taldekako erlojuaren aurkako proban Gipuzkoako federazioko selekzioarekin bigarren sailkatu zen.



Jubenil mailako Ander Amonarriz.

Herri mailako plater tiraketa txapelketa

Santa Kruz Urnieta elkar-teak herri mailako plater tiraketa txapelketa antolatu du datorren maiatzaren 22rako. Goiz osoan zehar arituko dira Arkaleko tiro zelaian. Compak Sporting erako lehiaketa izango da, Antonio Gabirondo XV. memoria izango dena.

Izen ematea egun berean itxiko dute, goizeko 10:00etan.



Lehiaketa maiatzaren 22an da.

Mendi irteerak Urnietatik eta Andoaindik antolatuta

Mendigoizaleentzat aukera bi-koitza asteburuan. Zanpatuz elkartekok bi ibilaldi antolatu dituzte, Urnietatik gertu gainera. Txikienak Mullisko aldera abiatuko dira, eta handienak Onddira. Bestalde, Euskaldunak arrakasta handia izaten ari den Kontrabandisten bidearen etapa berria burutuko du.

URNIETAKO IRTEERA

Familia osoa Mullisko-Onddi aldera eramateko moduko plana antolatu du Zanpatuz mendi elkartek.

- Maiatzak 14, larunbata.
- 09:30 Besabi.
- Prezioa: 4 euro.
- Ibilaldia eta gero, hamaiketakoa izango da denentzat.

ANDOAINGO IRTEERA

Kontrabandisten bidearen 4 etapa: Leurtza-Bidekorri-Putuzeta-Belate, Euskalduna mendigoizale elkartekin.

- Maiatzak 15, igandea.
- 07:30 Andoain.
- Info: 943 59 22 32.
- Bi ibilaldi prestatu dituzte: luzea eta motza.

Urnietako pilotariak

Kadete mailako Aitor Aldunberri Udaberri txapelketa lau t'erdiko azken fasean aritzea ziurtatu du, lehen faseko bost partidak irabazi eta gero. Partida ona jokatu zuen beste behin, aurkariari alde handia ateraz. Ekialde txapelketan arituko dira, bestalde, Udaberri txapelketan aritu diren gainerakoak.

UDABERRI TXAPELKETA ESKUZ, 4 1/2

Urnietako 22-12 Ziotza

Aitor Aldunberri.

Mundarra 22-8 Urnietako

Iker Elgarresta.

Hernani 22-8 Urnietako

Alain Urra.

Urnietako 12-22 Gazteleku

Imanol Odriozola.



Aitor Aldunberri.

Maila oneko igerilaria

Berriki "III. Mikel Trueba Saria" ospatu da Santurtzin eta bertan master mailan Joel Lopez andoaindarra bikain aritua. Bi probatan parte hartu zuen:

400 libre eta 100 libre. Lehenengoan, 5:15:88 denborarekin marka pertsonal berria ezarri zuen.

100 metroko proban ere gauza bera egin zuen: Marka pertsonala hobetzea lortu zuen 1:05:12 denborarekin.

Azken proba honetan podiumera igotzea lortu zuen, 3. postua lortu baitzuen.

Lortutako emaitza on horiekin, klubeko marka onenak bereak dira ere



Joel Lopez.

FEDERAZIO TXAPELKETAKO IRABAZLEAK

URNIETA 23-18 ORDIZIA

Urnietako jubencil neskek Federazio Trofeoa irabazi dute, jardunaldi baten faltan. Partidaren lehen zatia berdindua izan zen arren, bigarren urnietarrek defentsa egokitu zuten. Irune Alcaide atezainaren geldiketei esker kontraerasora jokatu ahal izan zuten, gol errenta eskuratzen. Irabazitako Kopa asteburu honetan jasoko dute Andoaingo derbia jokatu aurretik.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Euskara Zuzendaritza



KIROL ALBISTEAK

Hasiera ona eman dio Gaztelekuk Herriartekoari

HERRIARTEKOA

ERRETERIA 0-3 ANDOAIN

Erreteria 8-22 Andoain Kadeteak

Iruretagoiena-Artola.

Erreteria 8-22 Andoain Jubenilak

Iraola-Usandizaga.

Erreteria 5-22 Andoain Nagusiak

Eskudero-Etxeberria.

ASTEBURUKO PARTIDAK ARRATEN

Andoain-Erreteria eskuz

Maiatzak 14, larunbata. 18:30.

Andoain-Donostia palaz

Maiatzak 15, igandea. 11:00.



Larunbat honetan Arraten arratsaldeko 18:30ean hasiko dira itzuliko partidak.

Hasiera ona izan du Andoaingo taldeak, eta datorren eskuzko buruz burukoa jokatzeko auke-

ra handiak ditu. Gauzak ondo, Astigarragaren aurka jokatu dute maiatzaren 20an edo

21ean Arrate pilotalekuan. Bi hitzorduetara hurbiltzeko deia egin du Gazteleku taldeak.

Iturzaeta pala lehiaketari hasiera eman diote



I.Garmendia, Ekain, M.Matias eta Txindoki.



Bejarano, Ugalde, Ion eta Uxan.



Otaegi, Jauregi, Estebe eta Tena.



Alvarez, Zabala I, Zabala II eta Arruti.

SORABILLAN LARUNBATEAN

10:00 Gaizka-Amondarain / Arteaga I eta II

10:20 Uxan-Ion / Matias-Garmendia

10:40 Ritxi-Maia / J.Manuel-Marce

11:00 Etxeberria-Aizpuru / Lontxo-Ion

16:30 Moli-Toxak / Arabaolaza-Lasa

17:00 Extebe-Tena / Herrada-Moreira

17:30 Irigoien-Sergio / Zabala I eta II

18:00 Loidi II-Iñaki / Arana-Ugalde

PALA MOTZA ARRATEN

Pala motzeko txapelketaren lehen partidak aurreko asteburuan jokatu ziren.

Emaizak:

Iradi-Labiano 40

Plano-Bagazgoitia 35

Mitxel-Nicuesa 40

Ibarguren-Andonegi 39

BIGARREN JARDUNALDIA

Maiatzak 13, ostirala.

20:00. Arrate.

Pala motza,

binakako partidak:

Altuna-Andueza

Ibarguren-Andonegi

Arozena-Mariñelarena

Iradi-Labiano

Kirol merezimendu saria

Datorren astean -maiatzak 17- saridunaren izena jakitera emango da, eta kirol patronatuko ordezkariak omenaldi ekitaldia datorren maiatzaren 31rako iragarri dute. Sariduna honako hauetaz artean aterako da:

- Mikel Esnal (Igeriketa).
- J.Manuel Aizpuru (Ehiza).
- Aritz Herrada (Crossfit).

- Klaudio Rezola (Mendi Lasterketa).
- Angel Gonzalo (Saskibaloia).
- Pedro Martinez (Futbola).
- Juanjo Rodriguez (Kulturismoa).
- Oinatz Gonzalez (Remontea).
- Alejandro Gonzalez eta Isabel Santa Cruz mendizaleak.

Ganbara saski taldea



Senior mailako taldeak hamabost egun atzera jokatu zuen azken partidari garaipena lortu zuen Bosteko talde-

aren aurka, Ligako txapelketa eskuratuz. Igoeraz gain, beraz, txapelketa lortu dute ere. Zorionak!

ASTEBURUKO EMAITZAK:

Ganbara JubM 23-94 Oartzun

Euskal Ligako aurkariaren aurkako oso partida zaila izan zen.

LEK 61-64 Ganbara InfM

Luzapenean irabazi zuten, Barkeroren 37 punturekin.

Areto futbol txapelketa

A Taldea Allurralden

Aure Maiton-OZU

Larunbata, 14. 14:30.

Txalaka-Kele

Igandea, 15. 09:30.

Centro Extremeño-Ekhia

Igandea, 15. 10:30.

B Taldea

Drink Team-Egur

Igandea, 15. 10:30. Arrate.

Ondarreta-Pausoka

Igandea, 15. 11:30. Arrate.

Ekaitz-Akademia GF

Igandea, 15. 11:30. Allurralde.

Futbola, asteburuko partidak

ERREGIONAL OHOREZKOA

32. jardunaldia:

Martutene 1-0 Euskalduna

33. jardunaldia:

Euskalduna-Aloña Mendi

Sailkapena:

1. Tolosa 67 puntu

2. Anaitasuna 65 puntu

15. Euskalduna 33 puntu

18. Orioko 26 puntu

PREFERENTE MUTILAK

29. jardunaldia:

Urnieta 4-3 Hernani

30. jardunaldia:

Roteta-Urnieta

Sailkapena:

1. Baskonia 68 puntu

4. Urnieta 55 puntu

5. Añorga 54 puntu

16. Lengokoak 11 puntu



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Erraustegiarekin kezkatuta, GuraSOS taldea sortu dute



Esti Aizpuru eta Gorka Alustiza Andoaingo gurasoak, Haizea alabarekin.

“Zuek bezalako guraso, aiton-amon eta osaba-izebaga, kezkatuta gaudenak Zubietan egitekoa den erraustegiak gure osasunean, eta bereziki umeengan, izango duen eraginengatik. Guk ez dugu interes politiko edo ekonomikorik, bakar-bakarrik gure seme-alabak babestu nahi ditugu: ez dugu beren osasuna arriskuan jartzerik onartzen. Horregatik, arazoari emango zaion irtenbideak, gaur egun gipuzkoarrron eta bereziki gure seme-alaben osasunerako berme nahikorik ematen ez duenez, erraustegiaren asmoa alde batera uztea eskatzen dugu”. Huraxe izan zen GuraSOS elkartearen ekimenaren aurkezpena, aurreko ostiralean Lasarte-Orian egin zutena.

Erraustegia eskualdean eraikitzearekin batera, osasun mailako bi kezka nagusi dituzte. Lehena, “Gipuzkoako agintariak BioDonostiarekin batera hitzartu duten azterlan epidemiologikoa”. Elkarteko kideentzat azterketa horren beharrak berak frogatzen du arriskua hor egon daitekeela.

Bigarrena, “Eusko Jaurlaritzak ingurumen eraginean 30 kilometroko diametroan eragin-eremua onartzen dueala” jakitea da.

Bi kezka horiez gain, Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeak medikuen azterketak guraso horiek alerta egoeran ipini ditu: “Medikuek argi diote: fetoak, haurrak eta gaztetxoak dira, gaixo eta edadetuekin batera,

erraustegien efektuen eragin nabarmenenak jasaten dituztenak”. GuraSOS taldeak eragin eremuan berrehun heziketa ikastetxe zenbatu ditu. Eta hori ikusita, elkarte gisa sortu eta martxan jartzea erabaki dute. Bi ekimen iragarri zituzten aurkezpen ekitaldian:

INFORMAZIOA ZABALTZEKO EKITALDIA HERNANIN

Datorren Maiatzaren 21ean Galarreta ondoan dagoen Orona-Ideo eraikinean informazioa zabalduko dute. Bertan erraustegiek osasunean sor ditzaketen eraginei buruzko informazioa zabalduko dute.

MANIFESTUA EGITASMOA GERARAZTEA ESKATUZ

Bestalde, manifestua prestatu dute ondokoa adierazteko: “Gure eta batez ere gure txiki eta gaztetxoaren osasunean erraustegiak izango lukeen eraginaz kezkatuta gaudela, eta gizartea eta haren ordezkariek hondakinen arazoari irtenbide bat aurkitzeko ados jar daitezela eskatzen dugula txikien, gaztetxoaren, inoren osasuna arriskuan jarri gabe”.

Gurasos.org webgunean manifestua irakurri eta nahi izanez gero atxekimendua eman daiteke.

HITZALDIA BASTERON, DATORREN ASTEAZKENEAN

Maialen Berridi eta Jose Mari Tallon medikuen eskutik. 19:00. Bastero. Maiatzak 18, asteazkena.

HITZ-GEZIDUNAK

		Hegazti zangaluzea	Kristalak	Erakusteak
Ledeako	* IRUDIKO IBAIA		Pl., taula boladuna	
Lore mota				
Mailu handiak				
Arrasto, aztarna	Hegoaldeko	Diru-etxe		
Metala lan-tzeko euskarri	Gela zaindari	Hamabi		
			Longidako herriburua	
Oreka ezak			Eguzkiak	
Gakoak				Suari daio
				Garai, aldi
Nafarroako herria		Kasik		Kontsonantea
Mirandakoa		Dosi, bokalik gabe		Jainko egiptoarra
Oilar gazteak				

SUDOKU

9 x 9-ko laukian hutsik dauden gelaxkak bete behar dituzu 1etik 9ra bitarteko zenbakiak idatziz eta kontuan izanik zenbaki bakar bat ere ez dela bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe berean, ezta dagokion 3 x 3-ko laukian ere

			1	6	5			
2	6					8	3	
9							7	
6		8		7			4	
	2				6			
7		6		2		1		
4							5	
1	7					2	9	
			4	9	3			

5X5

Ezker eskuin eta goitik behera, zenbaki bakoitzean hitz bera aterako zaizu

	1	2	3	4	5
1					
2					
3					
4					
5					

- Hegazti igeri-oindun.
- Ehun zati hamar.
- Donostiako auzoa.
- Karta iragarle.
- Antolatu.

HIEROGLIFIKOA



Zein ote zeure gorputzaldi txarraren arrazoa?

ERANTZUNAK

2	5	8	4	9	3	7	6	1
3	1	7	5	8	6	2	9	4
6	4	9	2	7	1	3	5	8
8	7	4	6	5	2	9	1	3
5	3	2	9	1	4	6	8	7
9	6	1	8	3	7	5	4	2
4	9	5	3	2	8	1	7	6
1	2	6	7	4	9	8	3	5
7	8	3	1	6	5	4	2	9

E	R	A	T
T	A	R	O
A	M	A	R
H	A	M	A
A	H	A	T

Bizitzaren nekea

E	R	A	A	K	U	S			
B	E	R	B	A	N	A	O	S	
H	E	G	E	R	E	K	A	K	
L		G	A	B	E	A	O	S	
		A	G	U	D	E	A	O	S
I	N	G	E	S	O	R	E	K	A
I	D	E	S	O	R	E	K	A	K
I	G	E	S	O	R	E	K	A	K
I	D	E	S	O	R	E	K	A	K
I	D	E	S	O	R	E	K	A	K

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



TOKIKOM

Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.eus
Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.eus
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus
www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus
Tel.: 943 300 732

Banatzaleak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia.
Huarte-Iruñea.

Agenda

MAIATZAREN 13TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

- Andoain, Bastero**
- "La modista".
Larunbata, 14. 19:30, 22:00.
Igandea, 15. 19:30.
Astelena, 16. 19:30, 22:00.
 - Datorren asteburuan: "Toro", "Angry birds".

Urnietan, Sarobe

- "Los cinco y el secreto de la piramide".
16:00, 18:30.
Maiatzak 15, igandea.

Matrikula

- Andoain, Bastero**
- Udal musika eskolan, ikasle berrientzat.
Azken eguna: Maiatzak 13.
 - Galardi Haurreskola, 0-2 urte bitarteko haurren matrikulazioa.
Maiatzak 23-Ekainak 3.

Urnietan

- Lourdes Iriondo musika eskola, ikasle berriei deialdia.
Azken eguna: Maiatzak 20.

Erakusketak

- Urnietan, Lekaio**
- Marisol Yabenen "Txokolatea": Txokolatea modu naturalean egiteko gauzatu zuen prozesua.
Maiatzaren 27ra arte.
 - "Egape dantzan", dantza taldearen hamar urteak.
Maiatzak 20-29.

Antzerkia

- Andoain, Bastero**
- El florido pensil (neskak),
Tanttaka taldearen eskutik.
21:30 Euskaraz.
Maiatzak 13, ostirala.

Hitzaldia

- Andoain, Bastero**
- Erraustegiaren eragina bi medikuen ikuspegitik.
19:00.
Maiatzak 18, asteazkena.

Pailazoak

- Urnietan**
- Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren "Amalur" ikuskizuna. Sarrerak salgai: Xauxar, Kantoi, Ernaitza.
17:30. Egape. 7 euro.
Maiatzak 20, ostirala.

Farmaziak

- Eskualdea**
- Andoain: Diaz Fernandez.
Urnietan: Urrutia.
 - Gauez: Urrutia.
Etxeberri, 1.
Florida auzoa.
Hernani.
Maiatzak 14, 15.

Rallya

- Urnietan**
- XXIII. Argazki-rallya.
Izen ematea: 09:30-10:00.
Maiatzak 28, igandea.

Dantza

- Urnietan**
- Gazte Funkyko ikasleen ikasurte amaierako emanaldia.
18:30 Sarobe.
Maiatzak 20, ostirala.
 - Balleta eta sormen dantza erakustaldia.
18:00 Sarobe.
Maiatzak 25, asteazkena.
 - Urnietan Dantzan, Egaperen eskutik.
Maiatzak 28, larunbata.

Deialdiak

- Andoain**
- Podemos Andoain Ahal Dugu zirkuluaren bilera, larunbat honetan.
11:00. Urigain.
Maiatzak 14, larunbata.
 - Ganemos Andoain hautagai-tzaren alde botoa eman zutenei bilkurarako deialdia.
19:00. Urigain.
Maiatzak 20, ostirala.

Musika

- Urnietan**
- Lourdes Iriondo udal musika eskolako ikasleen kontzertuak.
Perkusioa, pianoa:
18:30. Sarobe.
Maiatzak 30, astelehena.
 - Musika tailerra:**
17:30. Sarobe.
 - Bibolina:**
17:30. Sarobe.
Maiatzak 31, asteartea.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Maiatzaren 11n... Mila zorion **Ainhoa!** Asko maite zaitugu Kimetz, Aratz, Arane, Angel eta Ana.

URNIETA


ZORIONAK



Datorren maiatzaren 19an Unaxek 3 urte beteko ditu!! Zorionak eta muxu asko etxekoan partez!

ANDOAIN


ZORIONAK



Olaiak 7 urte beteko ditu maiatzaren 15ean. Muxuak aitaxo, amaxo eta Janiren partez.

URNIETA

ZORIONAK



Maiatzaren 17an **Alejandrok** 19 urte beteko ditu eta 26an bere arreba **Leticiak** 23. Muxu bana. Aita eta ama.

ANDOAIN

ZORIONAK



Maiatzaren 13an ostirala, **Jose Antonik** 90 urte beteko ditu. Familiaren partetik zorionak eta horrela jarraitu.

ANDOAIN



ZORION AGURRAK
Erraza da, dohainik:
www.aiurri.eus

Antia sariketako irabazleak

Aiurri astekaria inprentan zegoela, literatur lehiaketaren sari banaketa ekitaldia

egin zuten Urnietan. Hauek dira aurtengo irabazleen izen abizenak:

HAURREN KATEGORIA

1. **Kimetz Cachafeiro**
"Petrina Bidaiaren oroitzapenak".
2. **Joana Garcia**
"Nire egunerokoa".
3. **Arixen Unanue**
"Urteak aurrera".

GAZTEEN KATEGORIA

1. **Maddi Iztueta**
"Rosa".
2. **Ane Otaegi**
"Polita naiz".
3. **Ainhoa Arruti**
"Memorian galdurik".

Muxugoxoren aurkezpena

Maiatzak 27
18:00 Aurkezpen ekitaldia.
19:00 Bertso saio musikatua: Xamoa, Alaia Martin, Maialen Akiizu eta Egoitz Zelaia.

Gai jartzailea: H. Casabal. Sarrera: 3 euro (Xauxar, Ikasmin).
Jaiak iraun bitartean Jon Jauregiren koadroak, liburuen salmenta, produktuak,...

Udako ikastaroak Andoainen

Kirola.andoain.eus
Maiatzaren 19an hasiko da matrikulazio epea. Izena eman daiteke kiroldegian bertan, astelehenetik ostiralerara 09:30etik 13:00etara eta 17:30etik 19:30era.

Ikastaroak ekainaren 27an hasiko dira:
Bi hamabostaldi:
Ekainak 27-Uztailak 8.
Uztailak 11-22.
Hilekoa:
Ekainak 27-Uztailak 22.

EKITALDI HAUEK ETA GEHIAGO WWW.AIURRI.COM/AGENDA.PHP ATALEAN

ASTELEHENEKO EKAITZAREN IRUDI IKUSGARRIA

Astelehen arratsaldean ekaitza izan zen eskualdean, eta lehertu aurretik tximista ikusgarriak ikusi ahal izan ziren. Instate hori bikain jaso zuen @unvascoenlared twitter erabiltzaileak. Tximista argi-argi ikus daiteke Adarra eta Aizkorriko mendien artean.



Gazte festetako hitzorduak

Maiatzak 27-29
Poxta Zahar taldeak egitarauaren berri eman du. Guriako plazan DJ Bull arituko da ostiral gauean eta larunbat gauean hainbat talde: Txorroskilo, Eskaleak, Kezka eta Kalera.

Larunbatean, gainera, herri bazkaria egingo dute Idiazabal kalean. Bazkaria eta gero jolasak egingo dituzte.
Azken urteetan ohiko bilakatu denez, ekaineko lehen igandean paella lehiaketa egingo dute San Juan plazan.

Pirritx,
Porrotx
eta Marimotox

AMALLUR

Sarrerak salgai: ANDOAIN: Ernaitza. URNIETA: Kantoï, Xauxar

Maiatzak **20**, ostirala

Egape Ikastolako
jolastoki estalkia

17:30

URNIETA

7€

ANTOLATZAILEA:



AIURRI
BETERRI-AIZTONDOKO HAMABOSKARIA

